

KULTURA EZOZIKO JAIXAK HASTEN DIRA GAUR ROCK GAUAREKIN
KIROLA SORALUZE F.T.REN BAZKARIA ETA VI. SORALUZE SARIA

El piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 71. alea 2003ko ekainaren 13a





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan:

Jabier Alonso Hertz Klinika

Atxuri 1 - 1 eskuma / Telefonoa 943 75 16 13

“Radiografiak ordenadorez egiten gipuzkoako lelenguak izan ginan”

Noiz eta zeintzuk sortu zenduten Hertz Klinikia?

Bi pertsonan artian zabaldu genduan 1988.urteko uztailaren 19xan. Eguna goguan daukagu, orduan Plaentxian uholde famatuak izan bait ziran. 1989.urteetik aurrera bakarrik dihardut.

Zenbatek egitten dozue bertan lan?

Momentu honetan lau pertsona gare. Odontologo bat, mediku estomatologo bat eta bi auxiliari.

Ze zerbitzu eskeintzen dozue?

Ni ortodontzia orokorrian nago espezializatua, horretaz gain odontologia orokorreko zerbitzuak be eskeintzen dittugu.

Nungo bezeruak dittuzue?

Plaentxiakuak, eta inguruko herrixetakuak bebai. Durangaldekuak adibidez asko etortzen dira. Danetik, hiru urtetako umietatik hasita laurogei urtetik gorako edadetuataraino.

Etorkizunera begira asmo edo proiektu berririk bai?

Teknikoki begiratuta aldaketak egiten goiaz beti. Tresneri eta aparailu berrixekin egiten dogu lan. Adibidez, radiografiak ordenadorez egiten Gipuzkoa mailan lelenguak izan ginan.



Bukatzeko, zeintzuk dira lan honen alderik onenak edo txarrenak?

Beste lan askon moduan, esperientzia onenak eta txarrenak jendearekin daukagun tratutik datoz... horrenbeste urte eta gero oso gustora gare bezeruekin.



Zeeko zea zertzeko

MARI KARMEN ORTUETA

Goikaldian ipini doten izenburuakin ez dakit asmauko dozuen gaur zertz idatzi nahi doten, aspaldixan buruan nerabillen. Plaentxiko lur soruak bezin irristakorra bada be, azken aldixan zenbat bider ez ote doten pentsau "gure garaixan ez zan horrelakorik" urte asko atzera jun gabe ikusi in bihar zian Euskalerriko famelixa haundi eta ugari haiek. Gaur egun berriz, agintarixan beak be hor dabiltz ze asmau ezinda belaunaldi ordezkapena segurtatzeko; bateko ume jaio berri bakoitzeko halako laguntasuna izango dutela, besteko ez dakit zenbat diru ordainduko dutela... eta halabe, joaten dianak gehixao diala jaiotzen dianak baino, bakarrik falta dana da, zenbait traste erostera zoiazenian jartzen dotsuten lelua jartzia; "probatu, erabili eta ez bazaizu komeni, aldatu dezakezu". Gaurko gaztiak informaziñorik ez daukatelako ez da izango behintzat. Gehixao esango neuke, gaurko haurrak galderak egitteko gai dianerako erantzunak daukate, edo ta balitke lenao pentsatze hutsa be pekatu zanez, pentsau gabe egitten zala egitekua. Gaur orde, gehixegi pentsatzen dabe, zailtasunean bizitzetik erosotasunera hain salto haundixa emun dogu... hortxe gabiltz moldatu ezinik. Gaur dana da badaezpada, hautskor, espezialistak gara dana

aldatzen, apurtzen erabili eta botatzen. Afrikako Suazilandiako erreginak, yogurrak moduan kaduzidadea daukaten moduan. Madrid inguruetan haurrentzat hotel bat moduan funtzionatzen zeban guardexa bat itxi biharrian izan dial jakin dot. Zenbait aitatxo eta amatxo beren seme alabak hara eruan eta gero jasotzera jutia ahaztu egitten jakuen itxuria.

Hamaika entzuteko jaixoak gaela diño esaldi batek eta azkenengua entzun dotena hemendik gertu, Ermuan ikastaro bat antolatu dabiela familixia izan nahi dabieneztat, nahiz ez dabieneztat nahi gero sorpresarik ez dotsen eraman. Baiña ze sorpresa. Hori neri esatia bale! Jaixo baino bost egun aurretik bakarrik esan zostenian bi zetozela. Neu baino tontuagua medikua, sei hilabetekua nenguenerako susmua neukala esan notsan baina zela kaso egingo zotan beak dakixenakin... haurrak gehitzeko neurri danak ondo dagoz baina gure gizartiak daroian martxiari jarraitu nahi badotsagu, batez be emakumiak egin daben aurrerakadiari, hemen soluziño bakarria gizonezkuak aldatzian dago, eta ez Mikel Urdangarinek bere azkenetako abesti batian dion bezela "ikasle pixuan be pixukide dan Ohianak, alkondaria plantxatziai begira egon. Urri-nagora jun barik, gure herrixan jaijetan

antolatzen dan bakailaua prestatzeko lehiaketan parte hartzaile danak gizonezkuak izaten dia, zela ez ba, soziedadetako erregiak, baina patata tortilianian gehixen-goa emakumiak, adibide argixagorik... Ezberdinak baina berdintasunian berdin izateko oraindik bide luzea daukagula pentsatzen dot eta nere kontseju bakarria, ez izateko bildurrik lanari, haurrekin denpora galtzeari, eta gure nausixeri miresmena gordetzeari eta biztanleria gehitzeko zer egin? Oso errexa. Pasa barrixa dan euskal jaixan eta Gaztañerre eguna dala ta txapela buruan dala ateratzia ondo dagon bezela, zeeko zea egitterakuan txapelik gabe egin.

Gutunetan joan zen aleko Gorka Prietoren kolaborazioari erantzuna.

Telegrapak

Kaixo. Stop. Udaltzainak bihar, eta enterratzailia eskatu. Stop. hori bai, euskeraz dakixana. Stop. Sorluzen enterratzailie euskalduna izango da, .Stop. nahiz administrariak, medikuak eta euren papelak, euskeraz ikasi nahi ez. Stop. bainu on ibaixan. Stop. itsasua baino garbixago egongo da agian. Stop. Muak, muak...



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.
Telefonia 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Gurutze Ariznabarreta, Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ane Yabar (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Herriko musikari, bertsolari, olerkizale, txalapartari, djenbejole eta DJ gazte talde batek, agerpen artistiko ezberdinez osatutako jaialdia antolatu du *ekainaren 27rako, Gaztetxean*.

Zorion agurrak



Jone Gil

Ekainaren 5a

Iosu Gil

Uztailaren 8a

Jesus Gil

Uztailaren 15a

Zorionak etxekoan partez!

Segi orain arte bezain jator eta alaiak izaten.

Agenda

TERE GUENETXEA "URALDE"

Keramikako Erakusketa

2003ko ekainaren 6tik 15era

Larunbat eta igandean eguerdian.
Eibarko Topaleku erakusgelan.

IKASBIDAIKO ZENBAKIA

3.666

(943751474)

Merkatu Txikia



LAN ESKAINTZAK

***Ileapaindeagian lan egiteko** pertsona behar da 943-74-43-88

***Kamareroa** behar da 943-74-42-65

***Osintxuko jatetxerako** pertsona arduratsua eta lanerako gogoia duena behar da . Asteburuak libre 943-76-48-63 (Mari Jose eta Juana)

LANGAI

***12 monitore behar ditu** Gipuzkoako enpresak ingeleseko . Erref. 103072/4

***Gasolineriako bi neska behar ditu** Eibar Bergara artean dagoen enpresak . Erref 102853/2

***Prentsarako langilea behar du** durangoaldeko aldi baterako enpresak . Erref. 103029/4

***Kontserbera baterako langileak behar ditu** debabarreneko aldi baterako enpresak. Erref. 101206/3
Ondorengo lanpostuetan hautagai moduan sartzeari eskatu nahi baduzu: 901222901 telefonora deitu. (LANGAI)



LEHIAKETA

***Beasain: VI Igartza literatur sorkuntzako beka lehiaketa idazle berrientzat.** Uztailaren 1a arte zabalik da izena ematea. (Euskara Zerbitzua, Loinazko San Martin plaza, 20200 Beasain)

***Argazki lehiaketa.** Conventio Bureauk Gipuzkoari buruzko argazki lehiaketa antolatuta du. Gaia Gipuzkoako irudiak izango dira. Monumentuak, eraikin interesgarriak, parke eta paisaiak, kirola, gastronomia, folklorea, hirigintza. Gehienez 2 lan aurkeztu daitezke. Epea: ekainaren 30a (informazio gehiago: Elgoibarko igaztean: 943-74-14-61)



LEHIAKETA

***Hyundai Sonata 2.0 salgai.** Egoera onean. 653725947

***Ezkongai soinekoa salgai.** 300 euro 666762295

***Karro denda salgai Sango modeloa.** Ondo dago. 615700990

***Ducati markako motoa** erosiko nuke. 656757698

Gutunak

Gorka Prieto jaunari
erantzuna

Pil-pilean aldizkariaren azken alean maltzurkeria eta gezurra darien hainbat baieztapen egiten du Gorka Prieto jaunak.

Herritarrek demokratikoki aukeratu zuten Udal Gobernuak, sei hilean behingo maiztasunez, doako udal aldizkari bat argitaratzeko erabakia hartu zuen 1999. urtean egindako batzarrean, herritarrek informatzeko helburuarekin beti ere.

Profesionaltunez, eta lana beltz egin ostean, demaseko kalitatea daukaten sei ale argitaratu ditu Udalak. Pertsona eta alderdi politiko guztiakiko errespetuz aritu da beti eta herritarren gehiengo zabal batek oso gustukoa duen aldizkaria egitea lortu du. Ezkutatzeko ez daukagu ezer. Gure diru kontuak agerikoak dira, argiak. Argitaraldi bakoitzaren kostua 4.500 euro ingurukoa da. Sekula izan al dute herritarrek Udalaren ihardunari buruzko hain informazio zehatzik?

Udala da Pil-pilean aldizkariaren erakunde babesleetan printzipalena. Udalak euskara bultzatzeko darabilen dirutik 6.000 euro jasotzen ditu urtero Pil-pilean aldizkariak. Hori hala da eta hala behar du.

Uste dugu gauzak ondo egiten dihardugula. Herritarrek hala berretsi dute behintzat oraintsu. Halaber, uste dugu kritikak neurria eta egia behar dituela oinarri-oinarrian, eta zureak, Gorka Prieto jauna, horietatik falta ditu: neurria eta egia.

Alberto Sudupe (Alkatea)

Nerea Isasti

(Kultura Zinegotzia)

Eskertzen dizugu

Ekainaren 27an Sorraluzen jai handia izango da, argiak piztuko dira, bihotzak alaituko dira, barre algarak entzungo dira, MUSIKA EGINGO

DUGU. Batzuk kitarrarekin, beste batzuk bateriarekin, teklauarekin, ahotsarekin, txirularekin, soinuarekin....

Festa handi bat izango da MUSIKAREN inguruan, eta ez da dena "perfektua" aterako, baina sentimenduz eta ilusio handiz prestatutako jaialdi bat izango da. Lehenengo aldia da horrelako muntaia bat egiten dela, eta ziur gaude ez dela azkena izango. Parte hartuko dugun guztiok gogo handiz hartu dugu ekimen hau, MUSIKA MAITE DUGULAKO. Baina MAITASUN hau ez da sortu bapatean. Zuk, INES MARI, jaialdi honetan parte hartuko dugun pertsona gehienori sentimentu hori hazten irakatsi diguzu.

Orain ez zaude MUSIKA irakasten, baina zuk sortutakoak irauten du, eta gure barnean jarraitzen du, beraz, egun berezi honetan parte hartuko dugun guztiok ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIZUGU, BIHOTZEZ. Ane Muro (RK ZULO jaialdiko partaidea)

Ez dut ulertzen zela gastatu ahal izan diren haibeste mila euro kiroldegiko tabernan, gainontzeko jardunetarako azpiegiturak egokitu aurretik. Ze, non sartzen dira gure seme-alabak larunbat eta domeka arratsaldetan? Lehen zinea zegoen, eta orain?

Eusko Jaurlaritzaren 1998ko Kirolaren Legearen 103. Artikuluak udal kirol istalakuntzetan alkoholen salmenta debekatzeko duenean, ez da ulertzen zela kirola sustatu beharrean "poteoa" bultzatzen den. Benetan faltan somatzen dena, kirolaren erabilpen eta praktikarako materiala da, raketak, palak, uretako betaurrekoak, txankletak eta abar.

Beste esatekorik gabe, bete dadila legea!

Gregorio Uribe

hildakuak

jaiotakoak

Alberto Arribas Luque

Unai Iribar Gallastegi

Zer irizten dotsazu?

Soraluze Futbol Taldiaren 25. urteurrena dala eta, taldeko zuzendaritzak prestatu daben egitarau zabalaren barruan, taldiaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz berba egiteko lehendakari izan diranekin antolatu zan mahai inguruan taldiaren etorkizuna kolokan dagoela aipatu zen.

Zela ikusten dozu Soraluze F. T.ren etorkizuna?



Marisa Ezenarro
42 urte
Irakaslia
Gazterixia ez bada animatzen fubolian sartzen alperrik da. Juntatik be zeoze barrixa proposau bihako litzake igual, jendia erakartze-ko, eta herritarrok be naiz eta pertiduak ikustera ez juan, sozio egin biharko ginake, diruz laguntzeko.



Hilario Iturbe
82 urte
Jubilatua
Nik futbola ez dot asko jarraitzen egixa esateko, ala eta be, iruditzen jata bedar artifiziala jarri biharko litzake, oso praktikua dalako.



Xabier Ihabar
19 urte
Ikaslia
Egixa da herriko jende gero eta gutxiago animatzen dala eta kanpoko jendia etorri bihar izaten da. Azpiegiturak ez dare txarto, baina hobetu leizke eta zelaixa da horren adibidia.



Itziar Ezenarro
52 urte
Metaleko langilia
Ez naiz Soran partidu asko ikusten egon, baina afiziño politta daguala iruditzen jata. Instalakuntzeri buruz, ikutu txiki gutxiao egin biharko lirakez, eta benetan bihar dana, bedar artifiziala jarri behingoz.



Jaione Unanue
48 urte
Erizain auxiliarra
Nere ustetan gero eta afizionatu gehixago juatan da Sorako partiduak ikustera. Instalakuntzari dagokixonez, belar artifiziala jartzia derrigorrezkua deritzot. Udaletxetik be presiño pixkat ein biharko litzake bedar artifiziala jartzeko.



Marko Raskon
17 urte
Futbol jokalaria
Gero eta jende gutxiau animatzen da, eta maila ezberdinen arteko nahasketak egin bihar izaten dira. Nagusixen mailan kanpotik be ekarri leike jendia, baina beheko mailetan ez badao herriko jenderik... bedar artifiziala jartzia falta da.

FER. S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Egunkariko akzio eta rifak salgai denda eta tabernetan



Egunkariaren Aldeko Herri Batzordeak adierazi duenez, "Euskal Jai Egunean Egunkariko akzio eta errifak saltzeko ahalegin berezia egin ostean, dagoeneko Soraluzen batzea helburu den 12.000 eurotatik heren bat (4.000) lortu da".

Denda eta tabernetan akzioak

Egunkari berria laguntzeko diru bil-

keta egiten jarraitzeko, herriko hainbat taberna eta dendetan akzioak (50 eta 300 eurokoak) eta errifak (5euro) jarri omen dituzte eskuragai.

Sindikatuaren bitartez langileengana.

ELA eta LABek nazio mailan egunkari berriari laguntzeko hartu duten konpromisoa dela eta enpresetako lan-

gileei akzioak erosteko proposatuko diete.

Enpresetara ere bai

Enpresak akzio erosle garrantzitsuak izan daitezkeela konturatuta, herri batzordekoak enpresaz enpresa joango dira egunkari berriarendako laguntza eske.

Kuadrila batek 300 eurokoa

Oraingoz kuadrila bakarra da 300 euroko akzioa erosi duena baina talde txo bat elkartu eta askoren artean akzio bat eskuratzea sistema egokia izan daiteke.

Egunkari berrirako harpidetza kanpaina

Asteburu honetan egunkari berria kaleratzearekin batera, erosketa eta harpidetza kanpaina berezia egingo da herrian.

Herri batzordearen bilera 23an

Azkenik, herri batzordeak ekainaren 23an arratsaldeko zortziretan Udaletxean bilera egingo duela ere jakinarazi du.

52 Miloiko lanak elizako hezetasuna ezabatzeko

Bi urteko geldialdiaren ostean, maiatzaren erdialdera hasi dira elizako hezetasuna ezabatzeko eliz inguru guztian egokituko den zanga egiteko lanak. Zanga honen bitartez, lur azpitik elizaren oinarriak kaltetzen dituzten ur emari ugariak bideratu nahi dira. Abel Olaizola parroikiko lan batzordeko kideak adierazi digunez, "aztertutako eliza barruko zutabe baten %62ko hezetasun maila aurkitu da, edozein hormatan, maila normala %10-15 bitartekua darian".

Uren bideratze lan hauek, dena ondo badoa, 3-4 hilabete bitarteko iraupena izango omen dute eta 315.000 eurotako (55 miloi pezeta) aurrekontua.



Lan hauek orain 4 urte eliza eraberritzeko osatutako egitasmoaren baitan kokatu behar dira. Orduetik hona, kanpandorrea berritu, zinea bota, eskuineko nabearen teilatua konpondu, hezeta-

sunari buruzko txosten geoteknikoa egin, esker aldeko nabearen sabaia konpondu eta elizaren goi eta behekaldeko teilatu zatiak berritu dira. Guztira 470.000 euro (77 miloi) inguru erabili ziren lan hauek aurrera ateratzeko.

Abelek aitortu digunez, lan guzti hauek egitea ezinezkoa litzateke, bertan eta kanpoan bizi diren soraluzetar askok emandako laguntzarengatik (470.000 euro / 77 miloi) ez balitz. Aurrera begira, hezetasuna ezabatutakoan elizaren barrukaldeko eraberritze lanei ekiteko asmoa du Parroikiko Lanen Batzordeak, eta horretarako beharrezko diren azterketa eta proiektuak egiten omen dihardute.




LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Ezoziko Jaiak asteburu honetan. Gaur rock kontzertua 23:00etan.

Azken urteotan moduan, ekainaren bigarren astean egingo dira Ezoziko Jaiak. Auzokoek, egitarau zabala prestatu dute eta eguraldiak laguntzen badu jai arrakastuak izango direla aurrikusten dute.

Gaur ostirala, 23:00etan Rock kontzertua, izango da SEGABATHOR eta TIO VIVO taldeekin.

Bihar, arratsaldean luzatuko da jaiak, 16:30etan Mus, Tute eta Truk txapelketa jokatu da, 21:30etan herri afaria egingo da plazan eta gauean, 22:30etan hasiko den bolo txapelketaren ostean, TRIKIZIO erromeri taldeak alaitutako dantzaldia izango da goizalderarte.

Igandea, urtero moduan mendizaleekin batera ospatuko den eguna izango da. Goizeko 9:00etan Atxolinera mendi irteera egingo da mendi taldekoekin. Eguerdiko 13:00ean, mendizaleei ongi etorriko salda banatu eta meza izango da Ezoziko Amaren basilizan. Meza ostean, Sebas-



tian Lizaso eta Joxe Agirre bertsolari azpeitiarrak eta herri kirolak izango dira. Herri bazkaria

14:30etan hasiko da Armendi jatetxean eta bertan izango dira aipatutako bertsolariak eta egun guztian zehar jaiak alaituko dituzten Mendotz eta Bixkai trikitilariak. Bazkalostean 17:00etan gaztetxoendako zezentxoak izango dira plazan.

Larunbatean alkatearen izendapena

Larunbat goizean egingo da Udaltxean hurrengo lau urteotan Soraluze alkate izango denaren izendapen ofiziala. Egun honetatik aurrera eta hilabeteko epean osatu beharko dira batzordeak eta zinegotziek batzorde hauek lehendakartzak hartuko dituzte euren ardurapean..

Udaltzainik gabe bi egunean

Hilaren 6an (ostiral arratsaldean) eta 7an (larunbatean), ez zen udaltzainik izan herrian. Udaltzaingoak jakinarazi duenez, udaltzain batek neumonia harrapatuta hartu zuen baja egunegaitik gertatu zen hutsunea. Hala ere, udaltzainburuaren esanetan "beriz be gertauko dira hola kuak, udaltzain bat jubilatuta ostean ez garalako nahikua ordu eta egun guztiak betetzeko". Udan, udaltzainek oporrak hartzearekin, egoera larrituko dela eta irtenbide bat bilatu beharra dagoela dio. Alkateak bere alde tik, gertatu dena epe jakineko arazo bat izan dela eta aurrera begira "aukera ezberdinak" aztertu beharko direla adierazi du. Ez du baztertu udan ordu jakin batzuetarako jendea haterik baina oraingoz bestelako erabakirik hartzerik ez dela aurrikusten jakinarazi digu.

Motor erakusketa motor egunean



Joan zen igandean egin zen herrian, urtero Plaentxi Moto Club motorzaleen taldeak antolatzen duen motor eguna. Euskal Herriko eta Espainiako leku ezberdinetatik etorritako 60 motorzale inguru batu ziren eta inguruak motorrez ezagutzeaz gain, ja-tordu eder bat egin zuten frontoian.

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Telefona 75 24 09

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

Belarrak

Loradenda
eta belardenda

Erosketak etxera
eramango dizkizugu

Telf. 943 75 30 11

PASCUAL CHURRUCA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



RK Zulo jaialdia 27an

Herriko musikari, bertsolari, olerkizale, txalapartari, djenbejole eta DJ gazte talde batek, agerpen artistiko ezberdinez osatutako jaialdia antolatu du ekainaren 27rako, Gaztetxean. Hilabetetako entsaio eta lanaren ostean, emanaldi berezi bat prestatu dute, askotarikoa eta aldarrikapenezkoa.

Gogoratuko du irakurleak nola bidali genuen orain dela hilabete batzuk gure kazetari bat RKZULO izeneko proiektu ezezagun baten lehenengo bilera-afarira. Afari hartan 20 bat musikazale elkartu ziren herrian jaialdi bat antolatzeko asmotan. Lehenengo bilera haren ostean, gure kazetari-satorrarekin kontaktua galdu genuen, eta ez dugu orain dela gutxira arte beste berririk izan.

Baiña erredakziora maraka ikastaro intentsibo baten faktura iritsi zitzaigunean kezkatzen hasi ginen, eta berehala lotu genuen faktura gure kazetari desgertuarekin. Erredakzioko bilera batean faktura ordaintzea erabaki genuen, marakak ere kultura dira eta. Ordainetan, gure lankide ohiak RKZULOr buruzko informazio zehatza eman beharko zigun, gu erabat despistatuta genbiltzan eta.

Ez zen lan erraza izan berarekin kontaktuan jartzea, beti zebilen batera eta bestera presaka, marakak atzeko poltsikoan eta estuasun aurpegiz. Galdeketa gogor eta zehatz baten ostean (mehatxuak barne) ulertu genuen guztia, egun handia heltzear da eta gure lankideak ere parte hartuko du RKZULO jaialdian,

“RK Zulo Edozeinentzat zabalik dagoen proiektua da”.

hiru taldetan gutxienez marakak joaz.

Gure kazetariaren belarria ezagututa ondorioztatu dugu edozeinentzat zabalik dagoen proiektua dela, baina kontuz!, behin sartuz gero ez dago atzera bueltatzerik. Daukazun guztia eman beharko duzu, ensaio, afari, bilera eta abarretan, hau da, erabateko dedikazioa eskatzen du. Obserbadorea izan bazara zu ere konturatuko zinen gure herrian zerbait arraroa gertatzen ari dela. Ez al duzu ikusi despistatu itxurako gazterik gitarra eta ampliarekin kalean bueltaka? Ez al duzu entzun goizeko ordu txikietan tabernetan egindako ensaio espontaneorik? Edo kafe orduko tertulia musiko-literario arrarorik?



Takean potean jaialdiaren oinarri artistikoak bateratzeko afari-bilerak egin dituzte.

“ Obserbadorea izan bazara, zu ere konturatuko zinen gure herrian zerbait arraroa gertatzen ari dela”.

Gixajoak, etxean ez dituzte aguantzen eta nonbait askatu beharko dituzte beraien frustrazioak (musika ez da biderik txarrena). Egia esan guk ulertzen ditugu etxeok. Erredakzioan ere kokoterraino gaude! Horrela ez dago lan egite-rik! Gure kazetaria itzuli denetik ez dugu pakerik izan. Herrian ensaiatzeko lokalik ez dagoenez, eta marakak bere gorputzeko parte bihurtu direnez, hemen dauzkagu egunero bera eta bere lagunak musika izan nahi duen zaratak eginez.

Zorionez, sufrimendu hau ez da gehiegi luzatuko, bi aste barru, Ekainaren 27an izango da eta debuta. Gainera, badirudi datorren urtean ez dugula antzerako arazorik izango, irakurri dugunaren arabera, Udalak kultur etxe kurioso bat egingo du, eta espero dugu artistilla frustratu hauek ere ensaiatzeko lekutxoaren bat lortuko dutela bertan. Denon onerako izango da, benetan esaten dugu eguna hurbildu ahala egoera jasangaitza-

goa bihurtzen ari dela. Ez dago artistilla estresatu bat baiño gauza okerragorik: edozein leku da ona ensaio bat egiteko. Pil-pileaneko egoitzak konserbatorio katoliko bat dirudi, asteak daramatzagu siestarik egin ezinda auzokoak tonoa hartzen ez duelako, bilera batera joan eta beti ari da sateliteren bat boligrafoarekin erritmoak atera nahian.. Nahikoa da!

Guzti hau kontuan hartuta eta egoe-

“ 7 Musika talde, poesia emanaldi bat, txalaparta, bertso saio bat eta DJak ere izango dira festibalean”.

raz jabetzen joan garen ehinean, jaialdi honen nondik norakoak ordenatu ahal izan ditugu zuei informazio zehatzago bat eman ahal izateko. Badakigu 7 musika talde, poesia emanaldi bat, txalaparta, bertso saio bat eta DJ ak ere izango direla. 30 bat lagun guztira. Beraz, argi ibili, ziur inguruan badaukazula hauek elementoren bat. Egia esan ez da hain jente txarra, baiña pentsatu ondo, jaun-andere errespetagarria: utziko al zenioke zure seme-alabari RK ZULOko partaideren baten nobi@ izaten? Ez da broma gero. Guk aspirinak hartu eta hartu besterik ez

dugu egiten burukomiñak arintzearren.

Baiña tira, gure herriko neska mutilak

*“ Ez ahaztu; ekainaren
27an, Gaztetxean RK ZULO
jaialdia ”.*

dira bai, eta ideia ere egia esan ez da batere txarra, eta ikusi eta entzun egin beharko dugu zer egiteko gauza diren. Ez ahaztu: ekainaren 27an, Gaztetxean, RKZULO jaialdia. Mereziko du.

34 Plazentziatar aurtengo festibalean

RK ZULO festibala urteroko zita bihurtzea da helburua. Uda ostean edo, deialdi irekia egingo da, eta nahi duenak nahi duena planteatu, nahi duenarekin elkartu eta nahi duena egin ahal izango du datozen hilabeteetan. Helburua, etorkizunean RK ZULO festibalak esentzia artistiko irekia izatea da.

*“ Helburua, nahi duenak
nahi duena proposatu eta
etorkizunean RK ZULO fes-
tibalak esentzia artistiko ire-
kia izatea da. ”.*

Aurtengoa presaka egin da, eta denbora gutxi edukitzeaz aparte, beste arazo bategen eragotzi die gauzak lasaitasunez egitea: ENSAIORAKO LOKAL FALTAK. Plazentzian ez dago horretarako lokalik, eta nahiko desatsegina izan omen da Eskoria-tza, Aretxabaleta, Eibar, Elgoibar eta Bergarako beste batzuen lokaletara joatea. Traste guztiak hartu (gitarra, bajoa, bateria, amplifikatzaileak...), autoan sartu eta iñoren lokala okupatzeak intruso sentiarazi gaitu.

Konpondu beharra dago hau, lehenbaitlehen, eta berria ez den eskaera eginez jarraituko dute, modu batera edo bestera.

27KO RK ZULO JAIALDIAREN EGITARUA

20:00 etan Plaza Zaharran

-DJENBELEPARTA

(Txalaparta eta Djenbeak, erritmoaren bide galduetan)

-BERTSO-HOPa

(Hitzaren indarra doinurik azkarrenetan korapilatuta)

22:00 etan Gaztetxian

-KEIZPIAK (Poesia aukeratuak; bizitzari begiratu ilun eta argi bat emateko musikaz orditu aurretik)

23:00 etan musika taldeak

-STOLICHNAYA (Vodka soinu gogorak tragora edateko. Txorizo Pamplona usaiña ere bai: Vomito, The Class, Decibelios, The Stooges, etabar.

-ARKAKUSUAK (Punkixa ez da hil, ajia pasatzen zeren: RIP, eskorbutu, Delirium, Morau....

-TRANSFORMERS

(Errekazuloko la creme de la creme: Rolling Stones, Ruper Ordorika, Anari, The Doors....)

-ANTOINETTE AVEC POMMES DE TERRE (Paristik natorren artista bat naiz ni: The Police, Creedence, The Beatles, Miguel Bosé...)

-AUTOBLUESIAN

(Konserbatorioko kalitatea + PESA ko birtuosoak: Blues, Samba, Cramberries....)

-TAO PAI-PAI (Errekazulo paellako pop ikutuak: Itoiz, Tahures, Ruper, Bob Dylan)

-HARD TRIP (Erritmo basatia, Prodigynak baladak dira honen onduan)

-DJ-ak (Maitasunez, gaua ondo amaitzeko)

Boa noite! GAUON!



Irudi distorsionatu hau izan da lortu ahal izan dugun bakarra. Adierazgarria baina.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ
KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Asisko Urmeneta komunikatzailea

“Euskerazko mass mediek ez dute euskarazko hizkera informalik garatu”

Asisko Urmeneta. Iruñan jaioa. 0,02 Euro urte. Komikiak egiten ditu, grafi-tiak pintatu eta euskarari buruzko hitzaldiak ere ematen ditu. Gehien sakondu duen jakintzaz galdetuta, berak nahiago duela “egintza” hitza erabili, eratzun digu. Komunikazioa helburu duen edozein egintza interesatzen zaio eta hortan darama bizia. “Zazpiak Batman” taldeko kide da, Kukuxumuxu markaren marrazkilarietako bat, euskerazko esamolde informalak Mantxut eta Freskue liburuak kaleratu ditu eta Antton Olariaga eta Kike Amonarrizekin batera dihardu Euskal Herri osoan euskararen erabilerarenganako espiritu berri bat zabaltzen eta esamoldeak biltzen: Euskara Lardaskatzeko Manerak dira hauek.

Zergatik euskara lardaskatzen?


Euskaldunok umorea behar dugulako. Gu hizkuntzarenganako bertze ikuspuntu baten berri ematen saiatzen gara. Ez da kezka bakarrik, sentimendu bat da. Erdera goxo goxo ari da sartzen euskararengan aitzineko atetik, eta horrek izugarriko garrantzia du hizkuntzaren biziraupenerako ere.

Zer egin daiteke horren aurrean?

Hizkuntzari beste begi batzuekin begiratu behar diogu. Askeago jardun behar dugu, espermentatuz, asmatuz. Anton eta Kike liberatu behar lirarteke egun osoz. Baina hori gizarteratu egin behar da gero eta hor bitartekoez kale egiten digute. Euskarazko mass mediek ez dute hori euskerazko erregistro informalik garatzen. Klaudio Landa da eredu.

Liburutan ere eman dituzue zenbait esamolde bilduma; Mantxut-en bi ale, Freskue..

Asisko: Jotzen ikasten da, joaz edo ariz. Orduan neurri batean paper edo liburu batean paper edo liburu batean agertzen badira hauek guztiak, diseka-



Antton Olariaga eta Asisko Urmeneta Gaztetxean eskeini zuten “hitzaldiaren” ostean.

tzeko arriskua dago. Liburuaren helburu naturala apalategi batean hautsa biltzea da. Guk ez dugu inolako katezismorik eman nahi baina bai beste ikuspegi bat.

Euskalkiak ze garrantzi dute hizkera informalaren garapenean?

Euskalkiak aberastasun handia dira, baina sarritan zama astuna ere bai. Euskalkirik gabeko eremuetan askatasun gehiago dago hizkuntza norbere gustura moldatzerako orduan, han inork ez dizu esaten hau horrela esan behar duzu edo hori ez da hemengoa... Nazio ikuspuntua izan behar dugu gogoan eta hori elikatu, eskaparatea bete. Denek ikus dezaten eta gero balio diena aukeratu.

Norbaitekin ligatzeko?

Asisko: Nik azken txosnara joatea proposatuko nioke edo #egitorgasmo bat egitea (orgasmo bat egiteko egitasmoa).

Norbait iraintzeko?

Asisko: Neri norbaiti tristea erratea

beti iruditu zait gogorra. Zugarramurdin esaten da Tristesortugaberik beharhinezena.

Zer aurkitu duzue Soraluzen?

Asisko: Soraluzen gauza aunitz. Esaterako “erruberan egin” esamoldearen esanahia soraluzen ezagutu genuen, behiaren erroekin zerikusia zuela eta ez erruberaren mugimenduarekin. “Kiriki-xotu” (haserretu) eta “patx ibili” (lasai ibili) esamolde berriak ere jaso ditugu. Niri izugarri gustatzen zait zuen euskara, errango nuke oso sexia eta kitzikagarria dela.

Berria berri.

Nik kezka bat daukat. Ez ote den izango “Zaharrak berri!”. Ez ote diguten berriz itxiko. Horien menpe gauden bitartean, egiten dugun zernahi gauza izango da kolokan; ikastolak, Kontseilua, Euskara Elkartek, autonomia bera eta beste mila kontu. Bestalde, irrikaz nago egunkari berria ikusteko. Noski, gora Egunkaria! biba Egunkaria!

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 beheko. telf: 943751780

Argitalpen honen laguntzaile



kutxa

zuri esker

Abesbatzaren X. urteurreneko kontzertu berezia

X. Urteurreneko ospakizunekin bukatzeko, Ezoziko Ama Abesbatzak kontzertu berezia prestatu du hilaren 21 erako, zaturako, Elgoibarko Itxaropena Abesbatzarekin batera. Kontzertua Plaza Zaharrean izango da, gaueko 22:00 etan, eta antolatzaileek aulkiak jarririko dituzte nahi duen guztiak kontzertua lasai eta eserita ikus dezan. Aurreko egunean, ostiralean, bi abesbatzek kontzertu bera eskeiniko dute Elgoibarko Herriko Antzokian. Elgoibarko Abesbatzak ere, Ezoziko Amak bezala, aurten betetzen ditu 10 urte, eta orain dela hila-bete batzuk ekin zion kontzertu berezi hau prestatzeari. Berezia izango da ez ohiko errepertorioa eskeiñiko dutelako. Ohiko kantuetatik aparte, bi abesbatzek elkarrekin 8 pop abesti ezagun eta mar-txoso (pelikula ezagunetakoak batzuk) eskeiniko dituzte. Hau izango da larun-batean eskeiñiko digutena:

Itxaropena Abesbatza

- 1-Finlandia Hyuini (Jeen Sibelius)
- 2-Jacinto Chiclana (Astor Piazzola)
- 3-Szello Zug Tavol (Lajos Bardos)
- 4-Lullaby (Kamoriute)
- 5-The Dure of Tosa
- 6-Soran Song of Hokkaido (Socen Bushi)
- 7-Txanton Piperrri (B. Zafirain)
- 8-The Lion Sleeps Tonight (Julio Dominguezek mold.)

Zuzendaria: Judith Murcia

Ezoziko Ama Abesbatza

- 1-De Colores Se Visten Los Campos (J. Trayter)
 - 2-Nerea izango zen (M. Laboa)
 - 3-Maite (P. Sorozabal)
 - 4-Illunabarra (Mocoroa)
 - 5-Shenandoah (James Erbek mold.)
 - 6-Days Of Wine And Roses (MANCINI)
 - 7-Freedom Trilogy (Paul Halley)
- Zuzendaria: Silvia Hernández



Argakian Abesbatzak Korrika Kulturalaren barruan eskeini zuen emanaldia.

Itxaropena eta Ezoziko Ama elkarrekin

- 1-What A Wonderful World (G. Davis Weiss, Bob Thiele)
 - 2-Over The Rainbow (Mago de Oz filmakoa)(Harold Arlen)
 - 3-The Sound Of Music (Sonrisas y Lágrimas filmakoa)(Richard Rodgers)
 - 4-Unchained Melody (Ghost filmakoa)(Alex North)
 - 5-We Go Together (Grease filmakoa)(Ed Lojeshi)
 - 6-Yesterday (Paul McCartney)
 - 7-I Say A Little Prayer For You (B. Bacharach)
 - 8-Bohemian Rhapsody (Freddy Mercury)
- Zuzendaria: Silvia Hernández

Larunbatean futbol taldearekin eta igandean Ezozin

Aipatutako kontzertuaz aparte, abesbatzakoek ez dute atsedenik hartuko asteburu honetan ere. Larunbatean, Soraluze futbol taldearen 25. Urteurreneko ospakizunen barruan, abesbatzako-

ek saiotxo eskeiñiko dute kiroldegian egingo den bazkari herrikoia ostean. Eta igandean, Ezoziko jaiak ospatzen direla eta, abesbatzako kantari fiñek eguerdiko 13:00etan ospatuko den meza alaituko dute.

Amodio gutun lehiaketa

Mari Karmen Ortueta Herriko Garaile



Karlos Aizpurua Oiartzuarraren "gutuna gelditu da lehenengo, 2. Maider Ziurriaitz urnietarraren "Errusiar mendi maitea" eta bertako euskalkian idatzitako gutunetan Mari Karmen Ortueta soraluzetarra "Berandu da berandu" lanarekin.



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Instalaciones Kalebarren S.L.




**GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN**

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Txirrindularitza

VI. Soraluze Saria domekan

Datorren ekainaren 15ean jokatuko da 23 urtez azpiko txirrindulariak lehiatuko diren Soraluzeko VI. Saria. Lasterketak 137 kilometro inguru izango ditu eta Itziar, Azkarate, Asentzio eta Kanpazarko igaro beharko dituzte. Lasterketa goizeko 9:30etan aterako da Gila Zubitik eta 13:00a ingururako lehen txirrindulariak Kañoi Fabrika parean izango den helmugara iristea aurrikusten dute antolatzaileek. Urtero bezela herritarren laguntza ezinbesteko izango da lasterketaren antolakuntzan eta dei berezia egin nahi zaie sora-



luzetarrei igande goizean, 9:00ak aldera, Gila zubira azaldu daitezten.

Soraluze FTren 25. urteurrena

Herri bazkaria Kiroldegian

Soraluze Futbol Taldeak asteburu honetan Kiroldegian egingo den herri bazkariarekin emango dio amaiera bere 25. urteurrena ospatzeko antolatu duen ekitaldi sortari (argazki erakusketa 30erarte zabalik izango bada ere). Hori bai, asteburuan ekimen gehiago ere izango dira, Euskadiko Aretoko Futbol Selekzioak, Bilboko Athletic taldeak eta Eibartarrak F.T. etako infantil mailako neskatilek jokatuko dituzten partiduak esaterako. Tartean Eibartarrak taldean dauden soraluzetar batzuk ere jokatuko dute.

Azken asteotan, era guztietako ekitaldiak antolatu dira urteurrena ospatzeko. Jendetsuena, ekainaren 7an Soraluzeko eta Errealeko betaranoek jokatuko zuten partidua izan zen. Azkenean Soraluzek 3 eta 0 eko emaitzaz galdu zuen partidua. Mahainguruak ere antolatu dira eta beharbada, Soraluzeko 4 lehendakari ohi mahian elkartu zituena izan zen klubaren iraganaren, orainaren eta geroaren inguruko eztabaida pizteagatik inters berezia izan zuena. Mahainguru horretan, iraganean Soraluzek epaileekin izan dituen liskarrak, gaur eguneko jokalarien artean nagusitu den utzikeriazko jarrera eta etorkizunera begira belar artifizialezko zelaiak leharkeen onura aipatu ziren besteak beste.



Mendi Astea

Finalista Eguna eta diaporamak



Urtero moduan Soraluzeko Mendi Taldeak mendi astea antolatu du finalista egunaren inguruan. Finalista egunaren barruan, domekan Atxolinera mendi irteera (9:00etan zubitik) egingo da eta ondoren, 13:00ean Ezozin salda hartu ostean Finalista Eguneko oroigarriak banatu eta 14:30etan bazkaria egingo da Armendin. Finalista egunaz gain, aurtengo mendi asteak maila altuko 3 diaporama emanaldi biltzen ditu, 4 ostegunetan eskeiniko direnak, arratsaldeko 19:30etan Kiroldegiko erakusketa aretoan (ekainaren 12an, Belen Eguzkitzaren “Chile. Basamortu eta sumendiak” saioa eskeinitzen.).

Ekainaren 19an
Oskar Markaida
“Mongolia. Nomaden herria eta altai mendiak”.

Ekainaren 26an
Jon Beloki
“Jainkosen Altzoan”

Pelota

12 Talde futbito txapelketan

Kiroldegia itxita zela eta azken bi urteotan antolatu gabe izan den arren, aurtengo futbito txapelketa antolatzeko ardura dute berriz Kiroldegiko ardura-dunek. Dagoeneko 12 taldek eman dute izena txapelketan eta partiduen egutegia osatzen dihardute orain. Partiduak larunbatetan jokatuko dira kiroldegiko frontoian eta finala jaietako lehen egunetan jokatuko da.

Ezozki Ariznabarreta

Mendixak gehixao inspiratzen nau.

Udia gertu daukagu ta igarri dogu bai gaurko egun eguzkitsuakin. Beruan nekiak alde batera lagata Ezozikin topo egin eta galdera batzueri erantzuteko eskatu dotsagu. Berak be udako planak eginda dauzka, eta ez edozelakuak! Herriko giuruakin gustora, espero deigun, berak nahi daben moduan, aurtengo Ezoziko jaixek Euskal Jaixak adinako arrakastia edukitzia.

Izen abizenak, edadia ta lanbidia.

Ezozki Ariznabarreta naiz, 34 urte dittut eta administraritzan dihardut.

Egun baterako planik onena:

Goizian oso goiz jaiki, mendi buelta bat emon eta arratsaldian hondartza er-tzetik beste bueltatxo bat emon. Gabian juergatxo bat urtetzen bada, ba oso ondo.

Gustoko menua.

Ensalada eder bat, danetikan daukana: sagarra, fruta sikuak, txanpi batzuk... Bigarrena nata ta txanpizko petxuga batzuk.

Abestixa, tokixa, animalixa eta koloria.

Sehaska Kanta, edozein mendi punta, txakurra eta naranja.

Gaurko giro eguzkitsu honek zer ekartzen dotsu gogora?

Oporrak. Laister oporretan noia eta lagunekin Vietnamera.

Zer irudittu jatzu aurtengo Euskal Jaixa?

Oso ondo egon da. Uste dot aurtengua proba bat izan dala, baina hola jarraitu bihar dala pentzatzan jata. Oin arteko Euskal Jaixak piska bat gastauta zeren ta aurtenguan jende pila batek parte hartzia lortu da.

Mendixa edo hondartzia?

Mendixak gehixao inspiratzen nau. Mendixan nere anbientian eta gustora sentitzen naiz.

Zer gehittuko zontsake Soraluzei?

Kultur Etxe bat falta dala uste dot. Herri honetan gauza asko antolatzen dira, baina askotan arazua nun egin izaten da.



Ezozki Ariznabarreta

Amets bat.

Herrixa euskaldunagua izatia nahiko neuke, benetan eukalduna. Gero eta atzerritar gehixao datoz eta euskerian aldetik bildur pixkat be emoten dosta.

Anekdotaren bat eukiko dozu

Bertso Begiz

*Opor usaian jarrita dago
plazan eguzkia hartzen,
ezpainetatik irriparrea
ez dago erreza kentzen.*

*Vietnameraino laiste,
ibiltzekotan aske
baina plaentxiarrak txo!
Han ere izango dira eta
ibili zaittezte txintxo.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)

kontatzeko, ezta?

Oin dala urte batzuk Galiziara jua ginan oporretara ta han alde batetik bestera ibiltzeko dedora zeinek hartuko eta plazentziatar batzuk. Herri txikixa gara baina danian gare.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



GAZTELUPE taberna

tel: 943 75 20 81

Argazki zaharra

70. Hamarkada hasierako irudia. Agustin Iburguen "Txoko"-ri omenaldixa S.K.B.ak antolatuta. Txoko Taberna S.K.B.ri uztearren. Elkarteko lehendakaria Eloi Uriarte zen.

Makurtuta eskumatik ezkerre-ra; Jose Luis Mendizabal, Bittor Trebiño eta Luis Larreategi "Iturbe".

Zutik eskumatik ezkerre-ra; Adolfo Alkorta, Eloi Uriarte, Salustiano Hoya, Juan Luis Jauregi, Santos Elizburu, Agustin Iburguen "Txoko", Jesus Mari Iraeta "Ketxu", Benito Eguren "Anjelenekua", Kattalin, Rafael Plazaola, Jabier Alkorta eta Timoteo Uzin.



Lehiaketa berezia

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



*Bi lagunendako afari
mundial bat
irabazi zeinke!!*

DEITTU
943 75 13 04ra

Aurreko irabazlea: Jesus Gil
Erantzuna: Larreategi

EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Lakuesta

Optika 


Ikusmen arazozen frogak eta
argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea

20590 Soraluze

Tfnoa 943 75 30 59



Ugaraxo



2.002ko ekaina 16. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian
Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

Zubi-Transbordadore zaharrena ezagutzera gonbidatzen zaitugu



Maiatzaren 16an, ikastetxeko 5. eta 6. mailakook Portugaleteko Zubi ezagutzera joan ginen. Euripean ibili arren, ez ginen beldurtu 50 metrotara dagoen zubitik, Nerbioi ibaia zeharkatzeko, beno, gutxi batzuk urduri samar jarri ziren eta behetik ikustea nahiago izan zuten.

Bertan zegoen gidariak, primeran azaldu zizkigun Zubiaren nondik norakoak:

Ibaiaren bi aldeak lotzeko beharra sortu zen, baina, Bilboko Porturantz abiatzen ziren itsasontzi handiko mastek ohiko zubi bat egitea galarazten zioten. Hori dela eta, egilearen irudimena piztu zen eta bi ertzen arteko 160 metrotako desafio egiten, izugarriko zubi egin zen.

Proiektua, 1888koa da eta Ferdinand Arnodin, Eiffel Dorrearen egin zuenaren ikaslearena da. 1893ko uztailearen 28an

inauguratu zen, hortik aurrera, munduko hainbat lekutan halako zubiak eraikitzen hasi zirelarik.

Hara igotzeko, igogailu panoramiko modernoak daude.

Zubiaren azpian, eta trena izango balitz bezala, 18 kabletatik eskegita eta airean, ibilgailuz eta bidaiariz beteta, ontzitxoak pasatzen da. Ontzitxoak 22tona pisatzen du hutsik eta bidaiariz beteta, 50 tona.

1893tik aurrera, 650 milioi pertsonak gurutzatu dute itsasadarra ontzitxoan. Ontzitxoak ibilitakoa Lurrera 31 bira ematea beste izango litzateke.

ZUBIRA IGOTZEA PENTSATZEN BADUZU, EZ BOTA TXISTURIK. EZ DUTE LAGATZEN ETA!!!

Guggenheim

Plaentxiko ikasleak arte abstraktoaren ikusle



Goiko argazkiari begiratuta, maiatzaren 16an, 5. eta 6. mailako ikasleok non egon ginen asmatuko zenuen onezgero, ez da?

Ba, bai, Bilboko Guggenheim museo ospetsua bisitatzeko aukera paregabea izan genuen. Beste batzuen artean, Alexander Calder eskulto-

rearen 65 obra ikusi genituen. Hauek, mugimenduan eta oreka mantenduz, zintzilika kokaturik dauden irudi geometrikoak dira.

Baina, zein inpresio ekarri zuten Plaentxiko ikas-kideek han ikusitakoari buruz?

Hona hemen erantzunak:

1. Zer gustatu zitzaizun gehiago, kanpoan ikusitakoa edo barrukoa?

- Kanpokoa % 52
- Barrukoa % 25
- Biak % 23

2. Orokorrean, gustatu al zitzaizkizun bertan ikusitako arte lanak?

- Bai % 83
- Ez % 17

3. Ikusitako lan guztietatik; zein aukeratuko zenuke?

- Kanpoan dagoen txakurra.
- Txakur urdina.
- Kanpoan botatzen duten lurrina.
- Burdinazko tren.
- Makurtuta zegoen neskaren koadroa.
- Calderren mobilak.

4. Deskribatu hitz batez bisitaldia.

- 12 lagunentzako, interesgarria.
- 11 " , polita.
- 7 " , aspergarriak.
- 7 " , dibertigarria.
- 2 " , bitxia.
- 1 " , oso modernoa.



Erantzunak ikusirik, era guztietako iritziak daudela esan dezakegu. Hala ere, bistan dago, gehiengo handi bat gustura gelditu zela ikusitakoarekin.

Ze eritzi daukazu politikuen inguruan?

MAITE RUIZ
8 URTE

Neri ez jata gustatzen egiten dabena. Gaizki portatzen dirala jentia-kin. Hona etortzen diranian joten hasten da.



JEFRY CID
12 URTE

Oso garrantzitsuak dira. Asko esaten dabe baina ez dabe ezer egiten. Neretako Aznar eta Bush berdinak dira.



JULIA PEREZ
8 URTE

Barregarriak dirala. Neri pixkat gustatzen jata. Gaizki iruditzen jata jentia hiltzia. Gaizki irduditzen jata batzuetan itxi egiten dituztelako lekuak.



LEO ZAROBÉ
11 URTE

Rollo bat da. Ez dot ezer ulertzen. Ez jata gustatzen dana diruagatik egiten dabelako. Txarrena da oindio ezin dotela boturik emon.



Ikusi Makusi Zein Ikusi?



Zein da alboko argazkian agertzen dan andereñua ?

Zein dan baldin badakizu,
DEITTU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezker **denborapasako aldizkari edar bat** irabazi ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak: Lore Gallastegi eta Janire Moreno.

Erantzuna: Jose Tardío
Saria IRATXO Goxodendan eskatu

Esaixo zu... (amodiozko, zorion agurrezko... mezuak)

Bartzelona eta Erreala dira ekiporik onenak, 6.B moduan (Iñigo G., Jefry eta Leo). Aupa Erreala, Kovacevic, Karpin eta Nihat! Eta Bartzelona. Aupa 6.B, onenak, majuenak eta listuenak gara! (Gaizka S., Oier L., Asier I. eta Iñigo G.). Aupa Erreala!, ligia irabazi bihar dau! (Marta, Ixone eta Mireia). Aupa Erreala eta S.B. Bea etxekolan gutxiao bial-



du (J. Laskurain). Frontoiko sarea jartzia eta "U" bat mesedez! (Leo Z. eta Jonathan Prol). Futbolean 6.B onenak dira. 6.Bko neskak gara onenak (Iñigo G., Asier, Gaizka...). Egunkaria aurrera! (Asier I., Gaizka S. Eta Iñigo G.). Guk abestiak kantatzen ditugu. Trialala trialala! (4. Maila A.).

Ezkarhilketa

**Eibar taldean
jokatzen daben
Gaizka, Leo eta
Iñigoren
amets borobilak.**

Eibar taldean jokatzen duten hiru futbolariekin egon gara oraingoan. Mundua oinazpian dutela, Eibarren jokatzeko euren bizitzan izan duen eraginaren berri eman digute. Harroxka xamar daude, amets handiak dituzte eta ahal dutenean erakustaldiren bat egiten dute jendaurrean baloiarekin. Futboleak ez dakigu baina lagun moduan, bikainak dira.

- Eibarren zabizte, baina jokatzen dozue bape?

Gaizka: Bai, bastante jokatzen dogu.

Iñigo: Bai, asko.

Leo: Bai, asko.

- Ze postutan jokatzen dozue? golik sartu dozue?

G: Erdilari gehixenbat baina lateral eta eskumako erdilari be jokatzen dot. Aurten 2 gol sartu dittut.

I: Aurrelari jokatzen dot batzutan. Golik ez dot sartu.

L: Eskumako erdilari, atzelari, zelai erdiko erdilari edo aurrelari. Aurten 5 gol sartu dittut.

- Eibarren jokatzen dozuenetik harruaguak zaretela diñue zuen lagunak?

G: Ez dot uste baina ez dakit.

I: Gaizkan lagunak igual esango dabe baina neriak ez.

L: Ez dot uste hori esaten dabenik.

- Eibarren zabiztenetik gehixao ligatzen dozue?

G: Antzera xamar. Bapez.



I: Ez. Zoritxarrez ez.

L: Ez. Igual denboriakin.

- Baloia borobila baldin bada, zegaittik da karratua atia?

G: Baloia hobeto sartzeko.

I: Atia borobila balitz atezainak baloi danak geldittuko littuzkelako.

L: Baloia jolasteko dalako da borobila.

- Ze taldetako zaliak zarete?

G: Errealekuak.

I: Bartzelona.

L: Bartzelona.

- Zein da zuen ametsa futbolian?

G: Realian edo Manchesterren jokatzia.

I: Bartzelonan jokatzia.

L: Bartzelonan, Manchester edo Realian jokatzia

- Zorte on!

Eskerrikasko XXXIII. Euskal Jai eder hau antolatzen lagundu eta ekitaldiotan parte hartu duzuen soraluzetar danori! Eskerrikasko bihotzez!


Eguerdiko alardean Soraluzeko Urrats dantza taldeak saio bikaina egin zuten eguzki galdatan eta jendearen txalo artean



Iruñako Oberena dantza taldeak Nafarroa aldeko dantzak eskeini zituen. Bazkaltzen (140 bazkaltiar) ere gelditu ziren eta iluntzean Larrain Dantza egin zuten.



6 Sagardotegitako sagardoa izan zen dastagai. Jendea egarriak zegoen eta ia dena edan zuen.



Imuntzo eta Beloki trikiti taldeak alaituta, era guztietako dantzak ikusi ziren Plaza Zaharrean.




Euskeraz lardaskatzeko hitzaldi harrigarria eskeini zuten Asiskok eta Anttonek Gaztetxean. Irainak, loreak eta denetik izan zen.



Sendotzako taldeak Oi pello pello! abestia aukeratu zuen. 130 Lagun eta 15 taldek baino gehiagok parte hartu zuten IV Kantu Afarian





Uzinen gitarrak eta Larreategiren soinuak jarri zioten musika aurtengo afariari. Saio bikaina.



Josune Jauregi eta Anjelua izan ziren aukeratuak, IV. Kantu Afariko Pernanda eta Pernando moduan.



Fresaketa teknologia



SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com



berria berri

Soraluzen 8.000 falta zaizkigu egunkari berrirako

Akzio eta bonoak salgai
Egunkariari laguntzeko 50 eta 300 euroko akzioak
eta 5 euroko errifak daude salgai ondoko taberna
eta dendetan.

Tabernak

Gaztelupe
Gila
Batzoki
Txoko
Mendata
Bolia
Arrano
Pub
Edurtza
Auresku
Kiroldegia
Itxaropena

Dendak

Erosle Kooperatiba
Mendizabal Okindegia
Iñarra Harategia
Lakuesta Optika
Jabier Alberdi Harategia
Salon Frutadenda
Belarrak Belardenda
Vidal Frutadenda
Iratxo Goxodenda
Txuritxu Goxotegia
Begoña Urdaitegia

Larunbatean 16:00etan Donostiara autobusa.
Egunkari berriaren aurkezpena.